

## NORABAIT

Ekiñe Aristizabal, 15 urte

*Oiartzun*

*Gehiago balio duelako norberak distiratzeak, benetako eguzkia lortu artean zain bizitzeak baino.*

Etxetik atera zara egunero legez, jakin gabe eguraldi ona egingo ote duenetz; izan ere, goizeko 6etan hotza egiten badu ere, gaurkoan eguzkiak ateratzeko asmoa duela dirudi. Kalera irten zaren arren, ez duzu oraindik itzarrrik dagoen pertsonaren itxurarik. Etxe-atariko trafiko seinaleari lotu zenion txirrindula hartu duzu eguneroko zure lehen geltokira bidean abiatzeko.

Eskerrak ordu hauetan ez den errepidean auto askorik ibili ohi, osterantzean honezkero gidariren batek aurrean eramana izango zintuen. Amak egunero esaten dizu, bada, kontuz ibiltzeko errepidean! Beti gogoratu behar izaten dizu zure aitonak ere beti errepikatzen zuen esaldi txoro hura: "Jainkoak zioen bera soilik dagoela hor goian, zeruan, eta hik zintzo-zintzo hankak lurrean dituala ibili behar duela". 10 minututan heldu zara zure eguneroko

ibilbidearen lehen geldialdira; espaloiko zuhaixka bati txirrinda lotu eta oinez abiatu zara 9. zenbakia duen portalera. Ordu eta erdi igaro ondoren, berriz ere kalean zara, zuhaixka eta zure ibilgailuaren alboan. Zure garraio ekologikoaz harro, berriz ere haren gainean jarri eta aurrerantz!

Dagoeneko burmuina bere ohiko egoeran daukazunez, pentsamendu sakonetan murgildu zara, zeure filosofo senari ohore eginez. Betiko bidean, eguneroko errepidetik ... Dagoeneko ez duzu zure ekintzei buruz nahikoa gogoetatzen ordea, sarritan inertziaz, automatikoki funtzionatzen duzu, esaldi bera behin eta berriz errepikatzen duen panpinaren gisan. Zure afizio eta gogoez ahazten joan zara, nolabait. Sistemaren esklabu bihurtzen ari zaren heinean; familia, ikasketak ... Baina ez duzu larregi pentsatzeko betarik ukan, txirrinda bere lekuan laga eta eraikin handiko ate automatikoa zure sudurraren aurrean ireki da. Bigarren geltokia. Latza izan da da eguneko bigarren geldialdia, izan ere, denetarik probatu duzu, pareta txuriari begira, ordulariaren orratzak behatuz, behatzak ahoan sartuta, begirada espazioan lekurik gabe kokatuta, alboko neskak zeukan hortz zuzentzaileari so, zeure baitan bertsotan ere aritu zara ... ez da nahi orduko igaro denbora. Alfer samar zaude gaur, hala eta guztiz ere, alfer inteligentea zara zu, lan gutxirekin etekin handia ateratzen iaioa den horietakoa. Zure aitaren arabera alferra edo gezurtia denak inteligentea izan behar du derrigor, gaizki ibiliko omen da bestela. Esan beharra dago, semea

ez daukala alfertzat, era guztietara ere, artabero samarra zarela esaten dizu sarri. Horrelakoa da zuen aita, bere hitz ezti eta samurren azpian, gezia baino zorrotzagoko esanahiak topa daitezke; agian, horregatik da hain maitagarria.

Itsuturik, hiru ordu geroago berriz ere bizikleta hartu eta maldan behera abiatu zara, haizeak aurpegian jotzen zaituela; eskerrak zure miope betaurreko lodiek begiak babesten dizkizutela, gainontzean malkoz blai iritsiko zinatekeen hurrengo... Berriz ere zure bizitzarekiko gogoetan, ez dakizu poza, tristura..... zer sentitu? Familia jatorra, bizi-modu eroso, lagunak...; badirudi dena daukazula, baina orduan zer dela eta zenbaitetan benetako tristura nabari duzu? Beti izan zara pertsona bakar-tia, moduren batez esateko, ezen bakarrik egoteko premia edo nahia izan ohi duzu sarri. Argi daukazu, ordea, benetan estimatzen zaituzten pertsonak dituzula inguruan, bada zutaz den-dena dakite eta hortik abiatuta maitatzen zaituzte; zuk beraiek maite dituzun moduan. Laguntasunaren bidean ez da utzi behar belar txarrak hazi daitezen. Oparotasunean egiten dira lagunak, ondoren egoera txarrek jartzen dituzte proban, izan ere maitasunaren neurria neurririk gabe maitatzea da. Erokeria da norbait maitatzea benetan erokeriaz maitatzen ez baldin bada norbait hori. Esaldi hauek guztiak oso potolo eta sakonak diren arren, norbait maitatzen denean dena jartzen da zalantzan, aldiz gu garenean maitatuak ez da inongo zalantzarik izaten norberarengan. Zenbat maite

duen esan dezakeenak, ez du maitasun handirik sentitu ohi. Eguerdi partea hurbiltzen denean, zure baitarako esaten duzu maitasun leial bakarra janariarekikoa dela. Beraz, bazkari-legea egin beharko duzu, bidean, beti bezala.

Dagoeneko hirugarren geltokira zoaz eta badirudi zure ibilbidetik geldiune bat murriztuz gero, honen egitura guztia gainbehera etorriko dela, eraikuntza bati bere zutabeak kentzean gertatzen den moduan. Bizia eguzkiaren baitan dagoen era berean, zure egunerokotasunaren menpe zaude zu. Maiz ez da erraza izaten txirrindan zoazela zure bizitzan atzera begirada luzatzea, errotonda batean ia ipurdiz gora erori baitzara. Ez zatekeen lehen aldia izango zure arreta eza dela eta istripu bat izan bazenu, izan ere, arestian hilabetez besoa igeltsutan eduki zenuen; oraindik ere ez zaizu oinazea erabat ezkerreko besotik aldendu, hala eta guztiz ere, sekula ez diozu bizikletan ibiltzeari utzi, nahiz eta arrebak ikusten zaituen aldi orotan errepikatzen dizun zure garraioa edo afizio hori ez dela normala. Akabo berriketak! Txirrindari eserlekua kendu bezain laster oinez abiatu zara. Hirugarren geltokia da, 45 minutu igaro dira eta ostera ere kalera irten zara, betiko hitzekin agurtu duzu alboko dendan egoten den amona, betiko emakumea espaloia errazten, betiko haurrak eskolatik bueltan...

Pedalei eraginez hemen zatoz berriro; askotan pentsatzen dut txirrindularitzatik bizi ahal izateko adina dohai baduzula, baina nahiago duzu zure eguneroko etaparekin jarraitzea, erlojuaren kon-

trakoa hain zuzen ere. Ene bada! Zure bizkarreko motxila urdinaren pisua areagotu egiten da arratsalde erditik aurrera, eta zure sorbaldek nabari dute jada! Izerdi apur bat bota ondoren, igo duzu maldaxka hori eta iritsi zara laugarren geltokira.

Nazkatu arte egon zara bertan eta atsegin handiz itzuli zara zure bizikletatxo maitearen albora. Aurrez pentsatzekoa zen bezala, lehen igotako aldapa jeitsi egin duzu orain. Bidegurutze batera iritsi zara, baina betiko erabaki berbera hartu ordez, ezkerreko errepedean zehar jarraitu duzu norabide zehatzik gabe. Bosgarren geltokia jadanik zure zain dago, baina ez dizu axolarik, edo hori uste duzu bederen. Hau zure filosofiaren erabat kontra doa! Non gelditu dira zure betebeharrak, zure kompromezuak, zure egitekoak...? Konturatzan ari zara ordea, zoriontasun handiaren zain zauden bitartean, eguneroko poz txiki guztiak galitzen dituzula.

80 Km bete dituzu txirrinda gainean zure ohiko bidea utzi zenuenetik, eta zenbat eta urrunago zauden, orduan eta gusturago jartzen zara. Estutzen zintuen kate imaginarioa gero eta gehiago lasaitzen doa, etxetik ihesi doan txakurraren gisan. Biharko arroza egosi behar duzu, amari hots egin, etxea garbitu... Tamalez, gisa honetako gauzek ez dizute guztiz inguratzen zaituen paisaia zoragarriaz gozatzen uzten, baina ziur zaude denborarekin lortuko duzula, bada gaurkoa lehen pausoa besterik ez baita izan. Badakizu ezin diozula naturari kontra eginez mutil arduratsua izateari utzi, baina ez duzu

zalantzarik modu honetan zure bizimodua hobetu dezakezula, eta ere berean, zeure burua zoriontsuago egin. Nahiz eta ezagutzen ez den horri buruz iritzi hobea edukitzen den sarri (ia beti), proba egin beharko zenukeela uste duzu, lotura gutxiagorekin lortu ote daitekeen zoriontasun bedeinkatu hori. Umetan zenuen historiako irakasle baten hitzetan, askatasuna eta zoriontasuna ez baita loturarik gabe bizitzea, norberaren betebeharrak eta eskubideak uztartzea baizik. Betebehar eta eskubideen arteko oreka bilatzea soilik falta zaizu, eta gaurko aurrerapausua zure eskubideen aldarrikapena izan da, zure betebehar (geldiune) guztien gainetik. Garrantzitsuena ez baita patuak zutaz egiten duena, zuk patuarekin egingo duzuna da garrantzitsua. Hala eta guztiz ere, ez duzu zeure bizimodua goizetik gauera aldatu nahi, badakizulako amets egitea ona den arren, zentzuak gidatu behar zaituela.

Ezinbestean, berriz ere etxerako bidean jarri zara, ez da, ordea, betiko ordua (dagoeneko 22:30ak dira!), ez duzu betiko jendearekin topo egin, ez da betiko tokia, betiko... Ez. Ezberdina da. Irribarre bat duzu ahoan eta zure alderdi poetikoak zapaltzen duzuna askatasunaren bidea dela esango luke. Bene-benetan, poeta baino gehiago, huts egindako bertsolaria zarela esango nuke nik, bertsolari moralista frustratu bat. Baina zure hitzetan, moralistak besteek hazkurea duten lekuan hazka egiten duten "pertsonaiatxoak" besterik ez dira, besteentzak aholku asko eman arren, beraiek

ei dute aholku premiarik handiena. Zuretzat zure kontzientzia da moralari buruzko libururik onena. Gizon ondratuak alferrikako hitz gutxi eta ekintza on asko izan ohi dituelako. Baina zuk ez duzu inor gorroto, gorrota zenitzakeen pertsona horiek horrenbesteko garrantziarik merezi ez dutela pentsatzen duzulako. Nietzschek zioen gutxiesten den hori ez dela gorrotatzen, gorrotatzen duguna gure parekoa edo hobea izaten delako beti. Bizitza zaila den arren, zuk dena errazten duzu batzuetan zure pentsamendu hauekin, besteetan aldiz zerorrek nahasten duzu guztia. Zure filosofo sen honek ez dauka zure bertsolaritasunarekin zen ikusirik, ezen bertsoak ez dituzu nahi dutuzunean botatzen, berak nahi duenean ateratzen da bertsoa. Bertsoa buruan sobran duzunean ahotik ateratzen zaizu, besterik gabe. Hala ere zure gogoetak ez dituzu ia inoiz jende aurrean esaten, isiltzen duzunak esaten duzunak baino eragin handiagoa duelakoan edo. Gainera gustatu egiten zaizu misteriotsu itxura azaltzea, ilargiak bezala inork ikusi ezin dezakeen alde ilun hori babesten duzu. Azken finean, jeinu guztien patua da ulertua ez izatea (ulertuak ez diren guztiak ez dira ordea jeinuak).

Heldu den astean (beti bezala) elkar ikusiko dugu, baina ez didazu astero kontatzen didazun gauza bera kontatuko. Hurrena zure bizitzaren kontakizuna egiten dudanean, ez baita inolaz ere berdina izango.

Etxetik atera zara egunero legez, jakin gabe eguraldi ona egingo duenentz; izan ere, goizeko 8etan

jada egunak argitu du, baina nahasi samarra dabil  
eguraldia...

Deitu al zenion azkenean amari?